



HONETAN
ERE...
SEGURO
HIZKUNTZA
JARDUERAK

ETA MUGI-
KORTASUN
SEGURUA

LEHEN
HEZKUNTZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico



AURKEZPENA

Lehen Hezkuntzako curriculumean, mugikortasun segurua zeharkako eduki gisa sartu da curriculumeko hainbat arlotan, eta berariazko eduki gisa *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* arloan. Ohituraz bide hezkuntza esan izan zaiona, maiz, bigarren mailan geratu izan da gainerako edukien presioaren ondorioz. Hala ere, ikastetxe askok, ikasgelan zirkulazio istripuen prebentzioa landu behar dela jakitun izanik, mukurua beteta izan ohi duten egutegiko ordu batzuk kanpoko eragileei uzten dizkiete, bide hezkuntzako jardueraren bat egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzan, harago joan behar dugula pentsatzen dugu. *Mugikortasun segururako hezkuntza* modu integratuan sartu behar da eskola curriculumean. Hori justifikatzeko arrazoia soila da, baina konplexua ere bai, aldi berean: heriotza goiztiarrak prebenitzea eta zirkulazio istripuetan izaten diren zauritu larrien zerrenda amaiezina geldiaraztea. Hezkuntza komunitate osoak bultzada handia eman diezaioke gure ahaleginari, eta asmo handiko dema honetan elkarlanean aritu gaitzeko.

Horretarako, curriculumeko arlo bakoitzeko berariazko edukiak prebentzioaren ikuspegitik ikasgelan inplementatzeko aukera ematen duten jarduerak proposatzen ditugu.

Zu ere hezkuntzako eragile zarenez, funtsezkoa da zirkulazio istripuen epidemia isila errotik kentzeko demara egin dezakezun ekarpena. Eskerrik asko, aldezturik, jarduera hauetara hurbildu eta ikasgelan gauzatzeagatik.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza

AURKIBIDEA

Zirkulazio istripuak: benetako arazoa, benetakoegia. [4]

Mugikortasun segururako hezkuntza: prebentziorako tresna. [5]

Mugikortasun segurua Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzako curriculumean. [6]

LEHEN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [9]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [10]

JARDUERAK

1 Zerk ematen dit beldurra? [11]

2 Monopatin berria. [12]

3 Hiria aztertuko dut. [14]

4 Mikelatsek mugikortasuna ulertzen lagunduko digu. [15]

5 Zer da segurua? [16]

BIGARREN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [21]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [22]

JARDUERAK

6 Asma dezagun ipuin bat. [23]

7 Etxetik ikastetxera. [24]

8 Har ezazu erabakia. [27]

9 Asmatuta dagoena asmatu. [29]

10 Istripua. [30]

HIRUGARREN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [33]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [34]

JARDUERAK

11 Zer diote adituek? [35]

12 Ipuina sortuko dugu. [36]

13 Egin ditzagun galderak eta eztabaida dezagun. [38]

14 Zer egingo du Markok? [40]

15 Eztabaidatxoak. [42]

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak


Lehen Hezkuntza

ZIRKULAZIO ISTRIPUAK: BENETAKO ARAZOA, BENETAKOEGIA

Garapenerako gure gizarte eredu motordun ibilgailuen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, zirkulazio istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da.

Gizartea gero eta jakitunago da zirkulazio istripuek eragiten dituzten biktimen kopurua murriztu beharra dagoela. Zirkulazio istripuetan hiltzen eta zauritzen direnen tasek behera egin dute, pixkanaka, gure inguruan, baina, hala ere, hilen eta zaurituen kopuruak epidemia batek eragindakoak adina dira oraindik. Eta, gainera, ezin dugu ahaztu zirkulazio istripuen biktima zuzenez gain, istripuen ondorioak zeharka jasaten dituzten pertsonak ere badirela: istripu larri bakoitzaren atzean, heriotza bakoitzaren atzean, familia tragedia bat dago.

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu zirkulazio istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta istripuak berak bakarrik saihestuko dituen ezer ere. Hala ere, guztiok onartzen dugu *giza faktorea* dela zirkulazio istripu gehienen atzean dagoena.



Giza faktorea deritzon horren ikuspegitik, arriskutsu direla hautematen ditugun egoerak saihestera eramango gaituen jokabide edo portaeratzat jotzen da prebentzioa; edo baldin arriskua errealitate bihurtzen bada, haren ondorioak murriztuko direla ziurtatuko duten jokaerak hartzea izango da.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA: PREBENTZIORAKO TRESNA

Benetan prebenitzeko, arriskua ezagutu, hauteman eta saihesteko nahia izan behar dugu.

Prebentziorako gure hezkuntza eredua *"Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida"*¹ izeneko dokumentuan jaso dugu.

Gidaliburu horretan hezkuntza ibilbide osoa zehaztu da, eta honako galdera hauei erantzutea du helburu: *zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan*. Ez da soilik ikastetxeetan erabiltzeko gidaliburua. Pertsonak, bizitza osoan, zirkulazio istripuak saihesteko edo istripuen ondorioak txikiagotzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak definitu dira.

Mugikortasun segururako oinarritzko zazpi gaitasun zehaztu dira gidaliburuan:

Arreta

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

Ingurunearen azterketa

Taldeko presioarekiko erresistentzia

Egokitzapena eta malgutasuna

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea



¹ Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun Segururako Hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURUA EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZAKO CURRICULUMEAN

*Derrigorrezko Hezkuntzaren xedea da pertsonaren alderdi intelektuala, afektiboa eta soziala era oso eta harmonikoan garatzea. Garapen horretan, funtsezko osagaiak dira hizkuntza eta literatura hezkuntza, gizarte jardueraren eta norberaren jardueren askotariko eremuetan hizkuntza erabiltzeko gaitasuntzat hartuta, baina baita literaturako testu esanguratsuak behar bezala irakurtzeko beharrezko gaitasun eta trebetasun multzotzat ere.*².

Zer dute komunean hizkuntzak ikasteak eta mugikortasun segururako hezkuntzak?

1. BALIOAK

*Hizkuntzak inplikazio estua du pertsonon bizitzan afektiboan eta kognitiboan. Sentimenduak ordenatzen ditu, eta bizitzako zein arlo akademikoko edozein ikasketetarako bitarteko nagusia da; izan ere, eskarmentua, hitzen bidez adierazten denez, eraldatu egiten da eta beste maila batera igarotzen da. Horregatik, hizkuntza menderatzeak berekin dakar tresna egokiak izatea norberaren barrena hobeto sartzeko, norberaren burua kokatzeko **ingurukoekiko harremana kontuan hartuta, bizikidetzara arautzeko, lankidetzan aritzeko eta modu kritikoa eta autonomoa** ikasteko.*

Mugikortasun segururako hezkuntza zirkulazio istripuak murrizteko eta istripuen larritasuna arintzeko estrategiatzat jotzen dugu, eta helburu du pertsona elementu aktibo izatea istripuen prebentzioan. Horretarako, garrantzitsua da pertsonok geure kabuz moldatzeko dugun gaitasuna (autonomia) espazio komunean ibiltzen garenean eta, beraz, bidean gurekin batera dabilzan pertsonen elkarrekin eta errespetuan (bizikidetzan).

2. TREBETASUNAK ETA EGITEN JAKITEA

Hizkuntza alderdi gakoak da gizakion garapenean, gizabanako gisa zein gizartearen dugun garapenean. Gizabanako gisa dugun garapenean, gizabanako bakoitzari pentsatzea, bere ezagutza eraldatzea, bere jarduerara arautzea eta adieraztea ahalbidetzen diolako da funtsezko. Eta, gizartearen izaten dugun garapenean, gizartearen bidez transmititu eta mantentzen delako, baina ez horregatik bakarrik; gizaki taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jardueraren gainean eratzen eta garatzen direlako ere bai. Kultura ere hizkuntzaren bitartez sortzen eta transmititzen da, eta huraxe du oinarri.

Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida izeneko dokumentuan jaso dugun istripuak prebenitzeko hezkuntza

ereduan behin eta berriro aipatzen da gizabanako ororen gizartearen garapenean eta norberaren garapenean «egiten jakitea», eta ikasleekin lantzeko proposatzen diren gaitasun guztiak erraz lot daitezke hizkuntza trebetasunekin.

Hizkuntzak, ezagutza finkatu eta gordetzeaz gain, aukera ematen du ezagutza horretara modu sistematikoan eta behin eta berriro jotzeko, eta bere laguntza gabe ezinezkoak diren erlazioak ezartzeko. Bestelako munduak aurkitzea eta autogogoeta egitea ahalbidetzen du, eta ezagutza autonomorako giltza eskaintzen digu.

Esate baterako, «Neure burua eta nire emozioak kudeatzea» izeneko gaitasunak bidea ematen du barne egoerez jabetzeko, bide arriskuak ekar ditzaketela ohartzeko eta barne bizitzara hurbiltzeko norberaren burua entzutearen bitartez. Hori oinarritzat hartuta sortu dira jarduerak, eta, jardueraren bidez, ikasleak honako hauek landuko ditu: ekimena, jendaurrean gauzak argi adierazteko konfiantza eta bere ideiak defendatzeko argudiatze trebetasuna eta besteen kritikak entzuteko gaitasuna. Jarduera horiek, gainera, eduki interesgarria eta balio linguistikoa dute.

² Ondorengo *aipuak* hitzez hitz hartu ditugu dekretu honetatik: 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. **IV. eranskina: Lehen Hezkuntzako arloak: EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA.**

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza



3. HELBURUAK

Hizkuntza arloko helburuetan metagaitasunak aipatzen dira; alegia, edozein eduki interpretatzeko eta partekatze balioren gaitasunak. Jakina da irakasle bakoitzak, programazioa egiteko orduan, literaturako testu edo eduki bat edo beste bat aukeratu behar duela eta, egiazki, ez da hain garrantzitsua bata ala bestea hautatzea, baizik eta honako helburu linguistiko hauek betetzea, besteak beste:

1. Askotariko erabilera eremuetako ahozko eta idatzizko hitzaldiak ulertzea; eta halakoak interpretatzea, hitzaldi horietan ulertutakoa komunikazio eta ikaskuntza egoera berrietan aplikatzeko.
2. Askotariko erabilera eremuetan ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, modu koherentean eta zuzen, komunikazio beharrak betetzeko.
3. Hainbat eratako egoeretan modu egokian solastatzea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera izanik, norberaren sentimendu eta ideiez jabetzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, pertsonen arteko komunikazio eraginkorra lortzeko eta ezagutza modu partekatuan eratzeko.
5. Hizkuntzetako ulermen eta ekoizpen prozeduretan dauden erabilera arauen eta sistemen gainean gogoeta egitea, haietako bakoitza behar bezala, modu koherentean eta zuzen erabil dadin bultzatzeko eta era egokian komunikatzeko askotariko gizarte eta kultura egoeretan. Horri esker, gainera, ez da balio judizioen eta era guztietako aurreiritzien isla diren estereotiporik sortuko.
7. Irakurtzen dena ulertuz irakurtzea askotariko erabilera eremuetako testuak, ikasleen esperientziei eta interesei lotutakoak, irakurtzeko zaletasuna har dezaten, irakurketa informazio iturri eta kultura, gizarte eta norberaren nortasuna eraikitzeko iturri dela ulertuta.

Dokumentu honetan proposatu ditugun jarduera guztiek lotura zuzena dute helburu horietako batzuekin.

4. PARTE-HARTZEZKO METODOLOGIA

Gizarte jardueraren esparru esanguratsuetan hitz egiteko, idatzeko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunek eta estrategiek osatzen dute curriculumaren ardatza. Trebetasun horiei loturiko ikaskuntzak eduki multzoetako hirutan jaso dira: 1. «Ahozko komunikazioa: hitz egin, entzun eta elkarrizketan aritu». 2. «Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi». 3. «Literatura hezkuntza».

Hizkuntzetako curriculum hainbat hizkuntzatan komunikatzeko gaitasunaren garapena ardatz hartuta planteatzen denez, beharrezkoa da ikasgela ikasleei benetan parte hartzen lagunduko dien espazio bihurtzea.

Dokumentu honetan proposatu ditugun jardueren helburua da kidekoen arteko trukea eta elkarrizketa bultzatzea; eta, horretarako, zirkulazioari loturiko edukiak baliatuko dira. Mugikortasuna egunerokotasuneko kontua dugu eta, beraz, interes ardatzetako bat da guztiontzat.

Mugikortasun segururako hezkuntza jarduerak hizkuntza eta literatura hezkuntzaren garapenean integratzen dira, hizkuntzak direlako bitarteko bakarra argudiatzeko, gogoeta egiteko, arriskuaz hitz egiteko, arriskua nola ulertzen dugun adierazteko, esperientzia esanguratsuak azaltzeko, eztabaidatzeko eta iritziak eta ikuspuntuak alderatzeko. Horrenbestez, ikasleekin egingo den lanak bi alderdietan lagunduko du, eta koherente eta eraginkorra izango da bi irakasgaietarako.

5. EDUKIAK

Dokumentu honetan proposatu ditugun jarduerak aukera ematen dute gai edo arazo bati buruzko iritzi antagonikoak dituztenen artean eztabaida egiteko, entzuteko eta hitz egiteko txandak gordetzeko. Jarduerak eurak kidekoen artean ikasteko tresna dira, eta hizkuntzean lan egiteko eta mugikortasun segururako hezkuntzan lan egiteko bidea ematen dute, era berean.

Jarduerak curriculumeko 1. eta 2. eduki multzoetan sartzen dira, batez ere:

- 1. eduki multzoa: Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu. Eduki multzo honetako jarduerak bidea ematen dute parte hartzeko, ikasleek iritziak parteka eta iritziok argudiatuz justifika ditzaten; gauzak era argian adierazteko interesa agertzeko; eta komunikazio elkarrekintzako oinarritzko arauak betetzeko.
- 2. eduki multzoa: irakurri eta idatzi. Jarduera horiek honako hauek lantzen laguntzen dute: idatzizko komunikazioa; datu soilak interpretatzen; ozenki irakurtzen, ahoskera eta erritmo egokiekin; eta nork bere testuak ekoizten, abiapuntutzat hartuta zirkulazio istripu interesgarri berraztertuko benetako albisteen eta kasuen analisia, istripuak zerk eragin dituen aztertzea.

Azkenik, jardueraren bat 3. eduki multzoan sartu da (3. eduki multzoa: literatura hezkuntza); jarduera horietan parte-hartzaileen adinera egokitutako bide hezkuntzari buruzko testuak irakurriko dira.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza





LEHEN ZIKLOA



LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUN, HITZ EGIN ETA ELKARRIZKETAN ARITU	1	2	3	4	5
Ikasgela barruan, giza harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak ulertzea: errutinak, abisuak, jarraibideak, azalpenak, iritzi adierazpenak eta bizitzako gertakizunen eta sentimenduen kontaketa.	●	●			
Ikasteko ahozko testuak ulertzea: deskripzioak, ikaskideen aurreko aurkezpen laburrak, ikasi beharreko edukiei buruzko elkarrizketak eta lanaren antolakuntzari buruzko azalpenak.	●	●	●		
Parte hartzea eta lankidetzan aritzea, honako ezaugarri hauek dituzten gizarte harremanetako eta ikaskuntzako komunikazio egoeretan: solaskide ezagun eta ohikoekin, harreman zuzenetan, gai zehatz eta hurbilekoetan.		●	●	●	●
Ahozko testuak ekoiztea (elkarrizketak edo bakarrizketa laburrak), ikasgela barruan pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren modukoak: jolaserako elkarrekintza (euskaraz, bereziki), abisuak, jarraibideak, azalpenak, iritzi adierazpenak eta bizitzako gertakizunen eta sentimenduen kontaketa.	●	●	●		●
Ikasteko ahozko testuak ekoiztea, dela helburu didaktikoarekin sortuak, dela egunerokoak: ikaskideen aurreko aurkezpen laburrak, deskripzioak, ikasi beharreko edukiei buruzko elkarrizketak eta lanaren antolakuntzari buruzko azalpenak.	●				●
Kidekoen artean elkarrizketa erabiltzea, ikaskuntza partekaturako tresnatzat hartuta.		●	●	●	●
Komunikazioari eusteko elkarrekintzako oinarritzko arauak erabiltzea: entzun, txandak gorde...		●	●	●	●
Gauzak ahoz argi eta bolumen egokiarekin adierazteko gogoia.	●	●	●	●	●
Lankidetzan aritzeko eta errespetuzko jarrera, bai komunikazio trukeko egoeretan, bai ikaskuntza partekatuko egoeretan.		●	●	●	
2. EDUKI MULTZOA. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURRI ETA IDATZI	1	2	3	4	5
Informazioa ulertzea esperientziari oso loturiko ikasteko testuetan, bai helburu didaktikoarekin sortuetan, bai egunero erabiltzen direnetan: liburuxkak, ikasliburuak, deskripzioak, jarraibideak eta azalpenak.				●	
Irakurritzko ulermenerako estrategiak erabiltzen hastea: aurretiazko ezagutza aktibatzea, aurrea hartzea, testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea, hipotesiak adieraztea, laburpenak egitea eta edukia barneratzea.			●	●	
Grafiko, eskema eta bestelako irudien bitartez adierazitako datu soilak interpretatzea.			●		●
Ozenki irakurtzea, ahoskera eta erritmo egokiarekin.				●	
3. EDUKI MULTZOA. LITERATURA HEZKUNTZA	1	2	3	4	5
Era aktiboan entzutea eta haurren interesetara egokitutako literatura testuak ulertzea.				●	
Haurren interesetara egokitutako testuak modu gidatuan eta iruzkinak eginez irakurtzea.				●	
Ikasleen adinera egokitutako literatura testu ezagunetako egoerak eta pasarte batzuk dramatizatzea.				●	



LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	1	2	3	4	5
Arreta					
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●	●	●		●
Ingurunearen azterketa		●	●	●	●
Taldeko presioarekiko erresistentzia		●			
Egokitzapena eta malgutasuna					●
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea	●			●	●

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○



1. JARDUERA

ZERK EMATEN DIT BELDURRA?

HELBURUAK

- Arrisku egoerei eta egoera horien ondorioei antzematea.
- Bide egoeretan arriskuari loturiko emozioak hautematea.

METODOA

Autokasuak, bateratze lana eta taldeko eztabaida.



NOLA EGIN

Hezitzaileak, gaia aurkezteko, azalduko du kalean ibiltzen garenean ikara eta beldur gaitzaketen gauzak gerta dakizkigukeela. Hezitzaileari iradokitzen diogu berak bizi izandako gertakizunen bat konta dezala, eta bizi izan zituen sentsazioak helaraztean jar dezala arreta: esate baterako, errepidea oinezkoen igarobidetik zeharkatzen zihoala auto bat agertu zen; ezustea, zalantza, beldurra, geldigeldi geratu...

Hori egin ondoren, hurrei eskatuko die marrazki bat egin dezatela, bakarka, honako izenburu honen pean: *Kalean beldurra sentitu nuen eguna*. Marrazkietan arrazoi argiren bat agertzen denean, hezitzaileak haur bakoitzari eska diezaioke marraztu duen egoera azal dezala. Bitartean, parte-hartzaileek bizi izan dituzten egoeren zerrenda idatziko du. Marrazkiak bukatzen dituztenean, mural batean itsats ditzatela eskatuko die hezitzaileak, eta esango die hurrengo saioetan bakoitzak bere marrazkia gelan ikaskideei azalduko diela.

Marrazkiei buruzko hurren kontakizunak entzutean, garrantzitsua da honako hauez hitz egitea: beldurraz, kalean egon daitezkeen arriskuez eta ea egin zutena ez beste zer bait egin behar zuten. Esate baterako, lehen azaldutako egoeran, kalearen bi aldeetara begiratu behar zuen hezitzaileak, errepidea zeharkatu aurretik. Nabarmendu beharrekoak dira, orobat, nola sentitzen duten arriskua, non sentitzen duten beldurra, nola jokatzeko duten beldur direnean eta abar.

Ahazko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketa aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi
Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



2. JARDUERA MONOPATIN BERRIA

HELBURUAK

- Klean egiten ditugun ekintzetan arriskua murriztu behar dugula onartzea.
- Oinezkoentzako gune seguruak zein diren hautematea eta bereiztea.

METODOA

Dilema moralak.



NOLA EGIN

Hezitzaileak dilema bat zer den azalduko die: dilema istorio bat da, eta horren gaineko erabaki bat hartu behar da, baina bi aukera baino ez dira izaten. Bi aukeretako bat hautatu behar da, nahiz eta biak izan baliozko eta biek izan aldeko eta kontrako arrazoiak.

Hori egin eta gero, hezitzaileak *Monopatin berria* eranskineko istorioa kontatuko du, eta amaieran, bi aukerak errepikatuko ditu:

Eskaileretan behera joango zinateke, parkera iristeko?

Arrapalan behera joango zinateke, monopatinaren gainean?

Ikasleak lerroan jarriko ditu, begiak ixteko eskatuko die (elkarren eraginik izan ez dezaten) eta lehenengo aukeraren alde daudenak bere eskuinaldean jar daitezzen esango die, eta bigarren aukeraren alde daudenak, ezkerrean.

Bi aukerak sortu direnean, azpitaldeak egingo dira (lau eta sei pertsona artean izango ditu azpitalde bakoitzak), bi aukeretan azpitalde kopuru berdintsua izan dadin saiaturaz.

Azpitalde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiak gainean gogoeta egingo du. Azpitalde bakoitzeko bozeramaileak beren arrazoiak azalduko dizkio talde osoari.

Bozeramaile guztiek azalpenak eman eta gero, eztabaida egingo dute talde handian, eta parte-hartzaile bakoitzak arrazoiak aldeko edo kontrako iritzia emateko aukera izango du.

Eztabaidan, parte-hartzaileetako edozeinek iritzia alda dezake. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi
Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



MONOPATIN BERRIA



Hugok eta Danielak zortzi urte dituzte, eta bikiak dira. Ez dute elkarren antz handirik itxuraz, baina izaeran oso antzekoak dira. Oso atseginak, irekiak eta jostalariak dira. Zaletasun berdin asko dituzte eta, horregatik, beti elkarrekin ibiltzen dira hara eta hona. Bata judo eskoletara badoa, bestea ere bai; bata gitarra jotzen badu, besteak ere bai...

Hugo eta Daniela amarekin joaten dira ikastetxetik etxera oraindik, bederatzi urte bete arte ez direla bakarrik joango esan die eta. Haiekin batera neba txikia ere joaten da; bi urte ere ez ditu oraindik.

Amak egunero hartzen ditu ikastetxean, askaria eramaten die eta hurrek kalean oinez doazen bitartean jaten dute. Etxera sartu aurretik, eguraldia ona bada, parkean geratzen dira, korrika egin, jolastu eta jauzi egiteko.

Egunero ohituraz egiten dutenez ibilbide hori, parkean jolas egiteko jostailuren bat eramaten dute beti. Pilota da arazo gehien sorrarazten dituen. Kalean boteka eramaten badute, ama haserretu egiten da eta pilota kentzen die parkera iritsi arte. Espaloian korrika eta jolasten ibiltzea oso arriskutsua dela esaten du, eta kalea oinez ibiltzeko dela, ez jolas egiteko.

Gaur egun berezia da: gelako beren adiskiderik kutunenetako baten urtebetetze eguna da, eta urtebetetze ospakizunera gonbidatu ditu. Hugo eta Daniela irrikaz daude Aitorrek beren oparia irekitzen duenean jarriko duen aurpegia ikusteko; izan ere, azken belaunaldiko monopatina erosi diote, beraiek dutenaren modukoa.

Iritsi dira ospakizun lekura; oso ondo apainduta dago, oso jaki goxoak daude, eta hondoko musika ere bai. Adiskideak apurka-apurka iritsi dira, eta Aitorrentzako opari guztiak txoko batean utzi dituzte. Hugo eta Daniela ziur daude beren oparia izugarri gustatuko zaiola, eta azken izan nahi dute oparia ematen. Beraz, besteenak ireki dituzte, Aitorrengana joan dira eta eman diote. Aitor oihuka hasi da, pozez gainezka, monopatina ikusi duenean. Gurasoei erakutsi die, eta probatu nahi duela esan die. Gurasoek esan diote han bertan ezin duela erabili, lokal itxia delako.

Une horretan, Danielari ideia on bat bururatu zaio: festa bukatzen denean, zergatik ez ohiko parkera joan? Han erabili ahal izango dute lehen aldiz monopatina. Bikiak beren monopatinen bila joango dira eta, hartara, hirurak elkarrekin jolastuko dira. Gurasoek baiezkua eman diote egitasmoari.

Festa amaitzen ari da, eta hirurak irrikaz daude monopatinak hartu eta parkera jolastera joateko. Gurasoei esan diete parkera joan nahi dutela berehala. Aitorrek esan die nagusiak direla dagoeneko eta, beraz, parkerantz joango direla eurak baino lehentxeago, eta han egongo direla zain. Hugo eta Danielaren gurasoak ez daude guztiz konbentzita, baina Aitorrenek esan diete semeak bederatzi urte bete dituela eta, hortaz, parkera bakarrik joan daitekeela. Hirurek eskaileretatik joateko baimena eskatu dute, huraxe baita biderik laburrena. Gurasoek, haurtxoen orgak eraman behar dituztenez, beste bide bat hartu beharko dute; apur bat luzeagoa, baina lauagoa. Guztiak parkean elkartzekotan geratu dira.

Haurrak zirrarez daude. Oinez doaz, monopatinak eskuan dituztela; poliki eta behar bezala, opariez hizketan... eta eskaileretara iritsi dira.

Bat-batean, Daniela ohartu da eskaileraren alde batean arrapala dagoela. Oso malda handia du arrapalak, ia eskailerak bestekoa, eta kale batean du amaiera. Kale horretan eraikinetako hainbat atari eta aparkaleku irteera daude.

Honako hau esan du Danielak: «*Hortik (arrapala seinalatuz) joan gaitezke; dibertigarriagoa da... eta, gainera, kokoteraino nago monopatina eskuan eramateaz*». Nebari begiratu dio, eta berriz ekin: «*Joan gaitezen hortik. Eskailerak oso aspergarriak dira, eta, gainera, ia-ia iritsi gara parkera*».

Aitorrek nahasi aurpegia du. Lehen aldiz erabiliko du monopatina eta, beraz, ez da oso trebea oraindik; baina badirudi adiskideari utziko diola erabakia hartzen.

Hugok ez daki zer egin behar duen: Zure ustez, zer egingo du?

Parkera joateko eskailerak erabiliko ditu, ala arrapalan behera joango da monopatinaren gainean?

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



3. JARDUERA


HIRIA AZTERTUKO DUT

HELBURUAK

- Oinezkoen oinarrizko arauak eta seinaleak identifikatu eta bereiztea, mugikortasun segurua izateko.
- Seinaleen erabilgarritasuna aztertzea.

METODOA

Talde txikietan lan egin eta taldeko eztabaida.



NOLA EGIN

Hezitzaileak gaia aurkeztuko die ikasleei: **zirkulazio seinaleak**.

Haurrei eskatuko die zenbait egunez jar dezatela arreta etxetik ikastetxerako bidean ikusiko dituzten zirkulazio seinaleetan eta lurzoruan marraztuta dauden bide marketan.

Seinaleez gogoratzeko, argazkiak egin diezazkiekete bai seinaleei bai seinaleak dauden tokiari. Argazki makinarik ez badute, idatziz jaso dezakete informazioa, edo marrazkien bidez.

Argazkiak egin edo informazioa idatziz jaso ondoren, talde txikietan banatuko dira haurrak, eta esperientziak partekatu beharko dituzte. Horrez gain, seinale eta marken esanahia asmatzen saiatu behar dute, bai eta seinaleen koloreen eta seinaleetan agertzen diren ikurren komunikazio balioa ere.

Ezagutza hori guztia talde handian bateratuko dute. Hezitzaileak oinezkoen zuzenean eragiten dieten seinaleak nabarmenduko ditu: semaforoa, zebra bidea eta egoitza kalea.

Honako hau ondorioztatu beharko dute: seinaleek informazioa ematen digutela, arriskuez ohartarazten gaituztela eta modu jakin batean ibiltzera behartzen gaituztela, gu geu eta gainerakoak seguru izango garela bermatzeko. Adibidez, oinezkoen pasabidea, ibilgailuak ere ibiltzen direnez bertan, gune arriskutsua da. Horregatik, oso ondo seinaleztatuta dago kalearen alde batetik bestera, ibilgailuak eta oinezkoak arretaz ibili behar direla ohartarazteko.

Eztabaida egin eta ondorioak atera ostean, talde txikietan jarriko dira berriz, eta oinezkoak egon daitezkeen arriskuetatik babesteko beste seinale bat marrazten saiatuko dira. Bukatzeko, talde bakoitzak txoko batean zintzilik jarriko ditu seinale berriak, eta gainerako taldeek zer esan nahi duten eta zertarako balioko luketen asmatzen saiatu behar dute.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○



4. JARDUERA

MIKELATSEK MUGIKORTASUNA ULERTZEN LAGUNDUKO DIGU

HELBURUAK

- Galtzen garenean zein urrats egin behar ditugun identifikatzea.
- Erabakiak hartzen ditugunean guregan eragina duten emozioez jabetzea.

METODOA

Ipuin bat irakurri, dramatizatu eta taldeko eztabaida.



NOLA EGIN

Jarduerari hasiera emateko, hezitzaileak haurrei eskatuko die *Mikelatsen helburua: mugikortasun segurua* ipuina irakur dezatela bakarka, eta irakurri ondoren, agertzen diren hiru amaieretatik zein aukeratuko luketen idatz dezatela paper batean.

Bukatzen dutenean, berriz irakurriko dute ipuina, baina ozen, oraingoan.

Ondoren, hezitzaileak boluntarioak eskatuko ditu, istorioa eta hiru amaiera posibleak dramatizatzeke. Hona hemen amaierak:

- Lehenengoan, protagonistak, negarrez eta nahigabetuta, dagoen tokitik alde egingo du.
- Bigarrenean, protagonista noraezean ibiliko da, eta ez die erantzungo laguntza eskainiko dioten pertsoneri.
- Hirugarrenean, protagonista dagoen tokian bertan geratuko da, eta bertan dagoen heldu bati laguntza eskatuko dio.

Talde handian, zein aukera hautatu duten azalduko dute, eta argudioak ematen saiatuko dira.

Guztien artean ahaleginduko dira ondorioztatzen hiru aukeretatik zein den egokiena eta zergatik ez diren zuzenak beste biak.

Garrantzitsua da egin beharreko urratsak argi uztea:

- 1- Gauden tokitik ez mugitu.
- 2- Laguntza eskatu.

Hezitzailearentzako oharra: jarduera hau bilduma bereko beste ipuin batekin ere egin daiteke; honekin: *Mikel eta Sara: lehenengo-lehenengoa, mugikortasun segurua!*



Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



5. JARDUERA ZER DA SEGURUA?

HELBURUAK

- Segurua eta ez segurua kontzeptuak bereiztea.

METODOA

Elkarrizketa klinikoa, ipuin bat asmatu eta eztabaida.



NOLA EGIN

Hasteko, hezitzaileak zenbait galdera egingo dizkie hurrei, segurua eta ez segurua kontzeptuen gainean gogoeta egin dezaten. Adibidez:

- *Zerk sentiarazten nau seguru?*
- *Nork sentiarazten nau seguru?*
- *Noiz sentitzen naiz seguru?*
- *Nola sentitzen naiz seguru nagoenean?*
- *Non sentitzen naiz seguru?*

Ondoren, galdera berberak egin daitezke, ez seguru kontzeptua sartuta.

Hezitzaileak arbelean idatziko ditu jasotako iruzkinak. Bukaeran, esandakoa laburbiltzeko, bi kontzeptuak alderatuko ditu.

Hori egin eta gero, parte-hartzaileak bi taldetan jarriko ditu, eta eranskinean jasotako irudietako bat emango dio talde bakoitzari. Irudian ikusten dutena abiapuntutzat hartuta, narrazio bat asma dezatela eskatuko die.

Asmatutako ipuinak irakurri eta gero, garrantzitsua da entzundako kontakizunetako egoera seguruak eta ez seguruak identifikatzea.

Atera daitezkeen ondorioak:

- Egoera batzuetan ez dago arriskurik, ez dago kalterik jasateko arriskurik.
- Leku batzuk arriskutsuagoak dira beste batzuk baino; esate baterako, kalea askoz arriskutsuagoa da parkea baino. Badaude eremu seguruagoak, eta haietan lasaitasun handiagoz ibil daitezke; hala ere, ezin dugu arretarik galdu, ezustekoak gerta baitaitezke.
- Ez da ibili behar seguru ez diren eremuetan, besteak beste, errepidean, halako bideak ibilgailuentzat dira eta.
- Beste eremu batzuetan, ibilgailuak eta oinezkoak biak ibiltzen dira, eta halakoetan, semaforoak egon arren, erne ibili behar dugu beti.
- Beti izan behar ditugu jarrera batzuk, arriskuak saihesteko:
 - Adi ibili, arretarik ez galdu.
 - Ez jolastu kalean; baimendutako eremuetan bakarrik egin jolas.
 - Kalea zeharkatu aurretik, begiratu ea ibilgailurik datorren ala ez.

...

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi


Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○






HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



ZER DA SEGURUA?



18

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○





ZER DA SEGURUA?



19

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○





BIGARREN ZIKLOA

BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUN, HITZ EGIN ETA ELKARRIZKETAN ARITU	6	7	8	9	10
Ahozko testuak ulertzea, ikasteko eta informatzeko: kidekoen arteko elkarrizketak eta lantaldekoak, jarduera arautzeko jarraibideak, deskripzioak eta gelako aurkezpenak.		●	●		●
Estrategiak erabili eta transferitzea, ahozko testuak ulertzeko: hipotesiak adierazi, gaia identifikatu, testuaren eta ideia nagusiaren zentzua eta abar. Informazio garrantzitsua eta garrantzi gutxikoa bereiztea.		●			●
Parte hartzea eta lankidetzan aritzea, honako ezaugarri hauek dituzten gizarte harremanetako eta ikaskuntzako komunikazio egoeretan: ohiko hizketakideen eta ez hain ohikoen artean (beste talde batzuetako ikasleak, eskola komunitateko helduak), eta baita ezezagunekin ere (aditu gonbidatuak); helburua izango da gauzak adieraztea, informazioa ematea edo konbentzitzea, gero eta urrunagokoak eta konplexuagoak diren gaietan.					●
Ahozko testuak ekoiztea (bakarrizketak edo elkarrizketak), ikastetxe barruan pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren modukoak: jolaserako elkarrekintza (euskaraz, bereziki), informazioa, azalpenak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizunak, bizikidetza arautzen duten elkarrizketak eta eztabaidak.			●	●	●
Ahozko testuak ekoiztea, ikasteko eta informatzeko: kidekoen arteko elkarrizketak eta lantaldekoak, deskripzioak, gelako aurkezpenak eta kontzeptuak definitzen hasi.				●	
Komunikazio trukerako elkarrekintza arauak erabiltzea, elkarrizketak hasteko, elkarrizketei eusteko eta elkarrizketak bukatzeko: deitu, ohartarazi, arreta bildu, itxaron, txandak, adeitasun arauak eta erantzuna egokitu hizketakideak esandakora.		●	●	●	●
Gauzak ahoz ahoskera eta doinu egokiarekin adierazteko gogoak.			●	●	●
Lankidetzan aritzeko eta errespetuzko jarrera, bai komunikazio trukerako egoeretan, bai ikaskuntza partekatuko egoeretan.		●	●	●	●
2. EDUKI MULTZOA. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURRI ETA IDATZI	6	7	8	9	10
Ideen analisi: ideia nagusiak, elementu faltsuak, zentzugabeak, gaia.		●			
Testua interpretatzea: egilearen asmoa.					
Ozenki irakurtzea, ahoskera, erritmo, geldiduna eta doinu egokiekin.	●	●			
Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezko diren testuak ekoiztea (ikastetxeko gutunak, bizikidetza arauak, abisuak, eskabideak...)	●			●	
Testuak ekoizteko estrategiak gidaritzapean erabiltzea eta transferitzea: komunikazio jarduera testuinguruan jartzea, testuaren plangintza egitea, testualizatzea, berrikustea eta nor bere ekoizpena zuzentzea.	●	●			
Kidekoen artean elkarrizketa erabiltzea, ikaskuntza partekaturako bitartekotzat hartuta.				●	
Testua taxutu eta antolatzea: egitura eta paragrafoak.	●	●		●	
Testu idatziak behar bezala orraztu eta aurkezteko gogoak, eta ortografia arauak betetzea.	●	●		●	
3. EDUKI MULTZOA. LITERATURA HEZKUNTZA	6	7	8	9	10
Era aktiboan entzutea eta gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura testuak ulertzea (ziklo honetara egokituak).		●			
Ziklo honetara egokitutako literatura testuak ozen irakurtzea, tonu, ahoskera eta abiadura egokiekin.		●			
Irudimena balioestea, errealitateak sortzeko eta beste errealitate batzuk berregiteko bitartekotzat hartuta.		●			



BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	6	7	8	9	10
Arreta					
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia		●			●
Ingurunearen azterketa	●	●		●	
Taldeko presioarekiko erresistentzia			●		
Egokitzapena eta malgutasuna				●	
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					●

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●●●



6. JARDUERA

ASMA DEZAGUN IPUIN BAT

HELBURUAK

- Bide segurtasunean eragina duten elementuak identifikatzea.
- Arau eta seinaleei buruz ikasleek lehendik zer dakiten ikustea.

METODOA


Ipuin bat asmatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak ipuin lehiaketa batean parte hartzea proposatuko die haurrei. Narrazio guztiak esaldi honekin hasi behar dira: «Semaforoek hitz egingo balute, zera esango lukete...». Kontakizunak ikaskideen aurrean irakurri beharko dira, eta talde osoan erabakiko dute zein gustatu zaien gehien.

Hori egin eta gero, hezitzaileak galdetuko die ea zein elementu dituzten komunean asmatutako ipuinek, eta honako hauek azal ditzaten eskatuko die: semaforoak zertarako balio duen, zer arrisku izan daitekeen kalea zeharkatzean, nola zeharkatu behar den eta abar.



23

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○●○



7. JARDUERA


ETXETIK IKASTETXERA

HELBURUAK

- Bide elementuei zenbaterainoko garrantzia ematen dieten identifikatzea.
- Seinaleen eta bideko arauen gainean gogoeta egitea.

METODOA

Talde txikian lan egin eta dramatizazioa.



NOLA EGIN

Hezitzaileak lau edo bost laguneko taldeetan jarriko ditu ikasleak.


Talde bakoitzari eskatuko dio pentsa dezala nola azalduko liekeen martetar bati etxetik ikastetxera egin beharreko ibilbidea: zer ikusiko duen eta zertarako balio duten bidean aurkituko dituen gauzek. Martetarraren larruan jarri behar dira, eta pentsatu behar dute nola sentituko den, ez baitu inguruan duen ezer ulertuko, eta nola lagunduko dioten ingurukoa ulertzen.

Gogoetarako denbora amaitzen denean, talde bakoitzeko boluntario bati eskatuko zaio martetarrarena egin dezala, eta beste talde batek egingako ibilbidea entzungo du.

Dramatizazioa egin eta gero, martetarrei galdetuko die azalpenetatik zer ulertu duten, nola sentitu diren eta abar.

Ibilbideen deskripzioetan, agertuko diren ideia nagusiak eta bide hezkuntzari loturiko kontzeptuak nabarmendu beharko dira: seinaletak, jarduteko jarraibideak eta abar.

Amaitzeko, Eduardo Mendozaren *Sin noticias de Gurb* liburuko zatiren bat irakur diezaike hezitzaileak; zehazki, kalean ibiltzearekin zerikusia duten zatiak.



Eduardo Mendoza © Wikipedia

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketari aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○●○



Iradokitzen dugun zatia (eguna: 17; ordua: 18:00)

Kaleko eserleku batean eseriko naiz, digestioa egiteko. Orain arte ia ez zebilen autorik, baina gero eta gehiago ikusten dira. Jende asko hirira itzultzen ari delako ari da hori gertatzen. Hiriko sarbideetan auto ilarak sortzen dira, eta, maiz, auto ilara handiak daudela esan ohi da. Auto ilara horietako batzuek, batez ere auto ilara handiak deritzenek, hurrengo asteburura arte irauten dute. Beraz, zenbait pertsona —eta familia oso— zorigabek denbora asko eta asko ematen dute landatik auto ilaretarako bidean eta auto ilaretatik landarako bidean, bizileku duten hirian inoiz oinik jarri gabe. Eta horrek, jakina, familia ekonomia eta haurren hezkuntza kaltetzen ditu.

Zirkulazio dentsitatea da hiri honek duen arazorik larrienetakoa, eta hiriko alkatea —hura ere Maragall izenekoa— gehien kezkatzen duten gauzetako bat. Alkateak hainbat aldiz gomendatu du bizikleta erabiltzea autoaren ordeaz, eta zenbait egunkaritan ere agertu da bizikleta gainean, hain zuzen. Dena den, ez du bizikletaz urruti joango den itxurarik izaten, egia esan. Beharbada, jendeak sarriago erabiliko luke

bizikleta hiria lauagoa balitz. Horrek, baina, ez du konponbide errazik, ia hiri osoan eraikinak egin baitituzte. Beste irtenbide bat litzateke Udalak bizikletak oinezkoen esku jartzea hiriaren goialdean. Hartara, oinezkoek hirigunera bizikletaz joateko aukera izango lukete, azkar eta ia pedalei eragin gabe. Bizikletak hirigunean daudenean, Udalak (edo, bestela, enpresa emakidadunak) izango luke ardura bizikletak kamioietan sartu eta hiriaren goialdera eramateko berriz. Sistema hori merke samarra izango litzateke. Gehienera ere, sare edo koltxonetaren bat jarri beharko litzateke hiriaren beheko aldean, oso trebeak ez direnak edo ero moduan ibiltzen direnak hiriaren behealderako bidea egin eta gero itsasora eror ez daitezen. Pentsatzeke dago, oraindik, hirigunera bizikletaz joandako jendea nola itzuliko litzatekeen hiriaren goialdera, jakina. Hala ere, hori ez litzateke kezka izan behar Udalarentzat, ez delako erakunde horren eginkizuna (ez beste inorena ere) herritarren ekimena mugatzea.





"SIN NOTICIAS DE GURB" EDUARDO MENDOZA

Iradokitzen dugun zatia (eguna: 13; ordua: 17:23)

Hirira noa, Ferrocarrils de la Generalitat izena duen garraiobide publikoan. Izaki bizidun batzuk (aza-kakalardoa, adibidez) era berean lekualdatzen dira beti. Izakiok, ordea, askotariko lokomozio bitartekoak erabiltzen ditugu, eta lehian aritzen dira guztiak, zein baino zein motelago, deserosoago eta kirasdunago. Azken atal horretan, oinak eta zenbait taxi izan ohi dira irabazle. Metro esaten diogun hori —izena gaizki jarrita duen garraiobide hori— da erretzaileek maizen erabiltzen dutena; autobusa da, bestalde, normalean itzulipurdika ibiltzea gustuko izaten duten adinekoek gehien erabiltzen dutena. Tarte luzeak egiteko hegazkin izeneko garraiobideak daude, pneumatikoetatik airea kanporatuz hedatzen diren autobus antzekoak. Atmosferako beheko geruzetaraino iristen dira, eta han mantentzen dira, santuren bati esker. Kasuan kasuko santuaren izena fuselajea ageri da (Avilako Santa Teresa, San Ignazio Loiolakoa eta abar). Bidaia luzeetan, hegazkinetako bidaiariak galtzerdiak erakusten dizkiete batak besteari, entretenitzeko.

Iradokitzen dugun zatia (eguna: 10; ordua: 08:15)

Gizakiak neurri aldakorreko gauzak dira. Txikiak hain dira txikiak, ezen garaia diren beste gizaki batzuek orgatxoan eramango ez balituzkete, berehala zapalduko bailituzkete garaienek (eta burua galduko lukete, agian). Garaienak gutxitan izaten dira 200 zentimetro luze baino handiagoak. Datu harrigarri bat: etzanda daudenean ere neurri bera dute. Batzuek bibotea dute; bizarra eta bibotea, beste batzuek. Ia guztiak dituzte bi begi, aurpegiaren aurrealdean batzuek, atzealdean beste batzuek; nondik begiratu, horren arabera. Oinez ibiltzen direnean, atzetik aurrera lekualdatzen dira eta, horretarako, zangoen mugimenduari indarra kendu behar diete besoei indartsu eraginez. Presaka doazenean indar handiagoz eragiten diete besoei, larruzko edo plastikozko diru zorroen bitartez, edo beste planeta batetik ekarritako materialez egindako Samsonite izeneko maletatxo bidez. Autoek aire kirastuz betetako lau gupil dituzte, elkarren parean jarrita. Ibilgailu horien lekualdatze sistema (gupilen bidezkoa) zentzuzkoagoa da, eta abiadura handiagoa hartzen dute. Ez dut buru gainean oinez ibili behar, ez eta hegan egin ere, ez baldin badut nahi xelebretzat har nazaten. Oharra: izan beti zorua gainean oin bat —ezkerra zein eskuina—, edo ipurdi deritzon kanpo organoa.



26

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●●●



3. JARDUERA

HAR EZAZU ERABAKIA

HELBURUAK

- Erabakiak hartzean taldearen presioak zer nolako eraginak dituen bizi izatea.
- Taldearen presioa zein arrisku egoeratan ager daitekeen identifikatzea.

METODOA

Jolasa, eztabaida eta autokasuak.



NOLA EGIN

Hezitzaileak bost boluntario eskatuko ditu, eta haur horiek gelatik irtengo dira. Adieraziko die gero joango dela jolasa azaltzera eta jarraibideak ematera.

Gelaren erdian lau mahai jarriko dira, eta mahaien gainean irudi geometrikoak, ausaz banatuta (sei bat irudi mahai bakoitzeko), inolako araurik gabe.

Gelatik kanpo dauden bost boluntarioei mahaietan ausaz banatutako irudien berdinak diren zenbait eskainiko dizkie hezitzaileak, eta bat hautatzeko eskatuko die. Ondoren, gelara banan-banan sartuko direla azalduko die, eta, sartzen direnean, eskuan duten irudia mahaietako batean jarri behar dutela.

Gainerako ikasleei, boluntario direnak sartu aurretik, jakinaraziko die esperimendu bat egingo dutela kanpoan dauden pertsonekin eta, horretarako, bost agindu bete beharko dituztela ikaskideak sartzen direnean; agindu bat boluntario bakoitzeko:

- 1- Mahai jakin batera adi-adi begiratu, begirik kendu gabe.
- 2- Boluntarioari oihuka hasi, oso azkar egin dezan egin beharrekoa, bera nahasten saiatuz.

3- Mahai batera joateko xuxurlatu, erantzun zuzena mahai hori balitz bezala.

4- Oihu egin, pieza inon jar ez dezan; guztia amarrua dela eta pieza berak gorde behar duela esan.

5- Irudia mahaietan jartzen duenean, norbaitek esan diezaiola irudia jartzeko toki egokia ez dela hura (adostu nork esango dion hori, jende askok batera esan ez diezaion); eta, baldin fitxa beste mahaietan batera eramaten badu, berriz esan behar zaio mahai hartan ere ez duela jarri behar.

Boluntarioen erantzuna dena delakoa izanik ere, jarduera egin eta gero honako hau eskatuko die hezitzaileak:

- Azal edo justifika dezala zergatik aukeratu duen mahai bat ala beste bat.
- Azal dezala zehatzago zer dela eta utzi duen irudia mahai horretan.
- Azal dezala ea, bere ustez, beste mahai batera joan zitekeen.

Bost esperimenduak bukatu eta gero, eztabaida egingo dute gertatu denaren gainean eta taldearen presioak gure erabakiak hartzeko moduan nola eragiten duen ikusteko.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi


Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○●○





Jolasaren ondorio gisa, honako ideia honek argi geratu behar du:

- Ez dago erantzun zuzenik; hau da, ez dago irudia uzteko toki logikorik. Beraz, erantzun egokienak izango dira taldearen presioaren aurrean amore eman ez dutenenak, alegia, beren erabakiari eutsi diotenak (erabaki hori dena delakoa izanik ere).

Eztabaida osatzeko, hezitzaileak haurrak adoretuko ditu, erabakiak hartzean norbaiten edo zerbaiten eragina jasan duten egoerak ikaskideei azal diezazkieten. Azter dezatela ea nola sentitu ziren, eta ea zer egin izana nahiago luketen.

Amaitzeko, hezitzaileak haurrei galdetuko die ea zein eragin edo presiopeko egoera identifikatzen duten beren mugikortasunean, eta, horrenbestez, zer arrisku dakarren taldearen presioaren aurrean amore emateak.

Taldearen presioaren ondorioz arriskutsu izan daitezkeen jokabideak:

- Ez dut kaskorik jarriko, adiskideek ez dutelako erabiltzen; dena den, nik, bakarrik ibiltzen naizenean, jantzita eramaten dut.
- Parkera adiskideekin joaten naizenean, bidean pilotarekin jolasten gara; hala ere, arriskutsua dela uste dut, eta bakarrik joango banintz ez nuke halakorik egingo.
- Ez dut jasogailurik erabiltzen besteen autoetan joaten naizenean, baina gure autoan beti jartzen dut.
- Eta abar.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●●●



9. JARDUERA


ASMATUTA DAGOENA ASMATU

HELBURUAK

- Arauen balioa identifikatzea.
- Bideko arauen erabilgarritasunari buruz gogoeta egitea.

METODOA

Talde txikietan jolas egin.



NOLA EGIN

Hezitzaileak hainbat mahai jolas erakutsiko dizkie ikasleei (partxisa, antzara jokoa, xakea, monopolia, kartak...). Talde txikietan jarrita, jolasetako bat aukeratu eta jolasaren arauak aldatu behar dituztela esango die. Esate baterako, antzara jokoa, antzararen laukitxora iritsiz gero, aurrera egin behar dugu hurrengo antzara agertzen den laukitxora, eta berriz bota behar dugu dadoa (antzara batetik bestera, eta neu oster). Bada, erabaki dezakete antzararen laukitxora iristen diren bakoitzean animalia horrena egin behar dutela, eta mahaiaren inguruan korrika egin. Garrantzitsua ez da zer erabakitzen duten, baizik eta erabakitzen duten hori taldean hartutako erabakia izatea, adostasunera iritsita, eta beti berdin egin dezatela.

Hezitzaileak eskatuko die taldeko bozeramailea aukera dezatela. Bozeramaileak jolas berria beste talde bati azaldu beharko dio, eta epaile lanak egin beharko ditu, taldeko kideek arau berriak bete ditzaten (arauak betearazi beharko dizkie).

Amaieran, hezitzaileak jolasean aritu diren taldeei eskatuko die azal dezatela nola gauzatu duten jolasa, eta epaileei galdetuko die ea parte-hartzaileek arau berriak bete dituzten ala ez.

Eztabaida sakonago egiteko, galdera hauek iradokitzen ditugu:

- *Gustatu zaizkigu jolasaren arau berriak?*
- *Zertarako balio dute?*
- *Arau guztiak bete al ditugu?*
- *Ulertu dugu zertarako balio duten?*
- *Arauren bat bete ez badugu, zergatik ez dugu bete?*
- *Zertarako balio dute arauak?*
- *Nola egiten dira arauak?*

Bukaeran, komeni da bideko arauetaz hitz egitea: zertarako balio duten, zer zentzu ikusten dieten eta zergatik bete behar dituzten. Izan ere, gizarte hitzarmen edo erabaki baten emaitza dira, eta inguruan ditugun arrisku batzuen berri ematen digute, ekintza batzuk egitera behartzen gaituzte eta arrisku horiez ohartarazten gaituzte.

29

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○●○



10. JARDUERA ISTRIPUA

HELBURUAK

- Norberaren autokontzientzia garatzea.
- Erabaki zehatz bat hartzera garamatzaten arazoiez jabetzea.

METODOA

Kasua, rol jokoa eta taldeko eztabaida.



NOLA EGIN

Hezitzaileak zortzi boluntario eskatuko ditu, istorioa antzezteko. Istorioa azalduko die, eta antzeztu behar dituzten pertsonaiak banatuko ditu boluntarioen artean:

Aitzol (pertsonaia nagusia)

Kattalin (aurrerara jarraitzera animatzen duen adiskidea)

Maite (balaztatzen duen adiskidea)

Motor-gidaria

Aurrean doazen beste adiskide batzuk (4 lagun edo gehiago)

Istorioa antzeztu eta gero, taldeari esango dio istripuaren erantzulea nor izan den zehaztu behar dutela. Azalduko die, hori zehazteko, eszenako protagonistak dituztela gelan bertan, eta haiei egin diezazkieketela beharrezkotzat jotzen dituzten galderak.

Bukatzeko, istripuaren erantzulea nor izan den zehaztu eta gero, istripua saihesteko istorioko pertsonaia bakoitzak zer jokabide izan behar zuen azaldu beharko dute.

Garrantzitsua da ikasleek ondorioztatzea, egoera horretan, pertsonaia bakoitzak erantzukizun zati bat duela, handia ala txikia; eta, beraz, guztiek egin zezaketela bestelako zerbait, istripua gerta ez zedin.

Aitzol: fisikoki, ez dago sasoirik onenean; gidatu bitartean jaten arituko da, arriskua ikusiko du eta Kattalin ekin eta ekin arituko zaiolako erantzungo du, hark egindako presioaren ondorioz.

Kattalin: Aitzol estutuko du.

Motor-gidaria: ez zuen motoa martxan jarri behar semaforoan argi berdea ikusi arte.

Gainerako adiskideak: kaleetan zehar lasterketa egitea proposatuko dute; arriskutsua da hori, eta talde presioa eragingo dute.



Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi
Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○●○





AITZOLEN KASUA



Aitzol herrian bizi da, eta batetik bestera bizikletaz ibiltzen ohituta dago. Gaur, baina, nekatu samar esnatu da, ez baitu ondo lo egin. Katarroa harrapatu du eta ezin du arnasa ondo hartu, baina, larunbatero bezala, adiskideekin hitzordua egin du herriko plazan. Beraz, jantzi, banana bat hartu bidean jateko —berandu baitabil— eta bizikleta gainean jarri da. Azkar samar abiatu da, oso berandu irits ez dadin. Azkenean, iritsi da plazara, akituta, esfortzuaeren esfortzuz sudurra ere guztiz itxita. Gutxigatik aurkitu ditu adiskideak plazan, ez zela etorriko pentsatuta baitzeuden ordurako. Basora joatea erabaki dute, masustak hartzera. Adiskide dituen neskatiletako batek honako hau egin dio oihu: *Zatoz, Aitzol, lasterketa egin behar dugu errotaraino eta!*

Banana oraindik eskuan duela eta ia arnasarik hartu ezinda, pedalei eragiten hasi da berriz, gogor, jo eta ke. Azkena da bera, eta Kattalinekek behin eta berriz diotso ez dadila atzean gera, lasterketa galduko dutela eta atzean geratuz gero.

Aitzolek ikusi du gerta zitekeen okerreana gertatuko dela. Azkena da bera eta, gainera, semaforoa gorri jarriko da, eta adiskide guztiak oraintxe pasatuko dira semaforoaren paretik... Maite semaforoan geratu da; berak ez du balazta sakatu oraindik, eta bidegurutzean zegoen motoa bere semaforoan argi berdea ikusi aurretik abiatu da eta ziztu bizian dator... Aitzolek ez du astirik gelditzeko; Maite saihestu du (ikaraz dago berari begira), eta saihesteko ahalegin horretan ez du garaia baino lehenago abiatu den motoa ikusi, eta harekin tupust egin du.

Biak lurrera erori dira.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ●●●





HIRUGARREN ZIKLOA

HIRUGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRÍCULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRÍCULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUN, HITZ EGIN ETA ELKARRIZKETAN ARITU	11	12	13	14	15
Ahozko testuak ulertzea, ikasteko eta informatzeko: kidekoen arteko elkarrizketak eta lantaldekoak, jarduera arautzeko jarraibideak, deskripzioak, gelako aurkezpenak, adituei egindako elkarrizketak edo eztabaidak.		●			
Ahozko testuen edukiko alderdirik garrantzitsuenak buruan atxikitzea eta ahoz adieraztea.	●	●			●
Informazioa erregistratzeko askotariko bitartekoak erabiltzea, ahozko testuetako informazio espezifikoak jasotzeko.	●				
Ahozko hitzaldien ulermena arautzeko kontrol estrategiak erabiltzea: aurrea hartzea, norberaren ulertzeko arazoak identifikatzea, irtenbideak bilatzea, argitzea eta egiaztatzea.	●				●
Parte hartzea eta lankidetzan aritzea, honako ezaugarri hauek dituzten gizarte harremanetako eta ikaskuntzako komunikazio egoeretan: hiztun garen aldetik har ditzakegun beste rol batzuetan (taldearen ordezkari, aditu...); beste hizketakide mota batzuekin (ezezagunak —beste ikastetxe batzuetako ikasleak— edo zehaztu ezin direnak —irriti-entzuleak edota telebista ikus-entzuleak—); aurrez aurreko harremanetan zein grabazioen edota ikastetxeko hedabideen bidezkoetan; helburua gauzak adieraztea, informatzea eta konbentzitzea izango da; gai ezezagunagoak. (zuzendu beharreko paragrafoa).	●	●	●	●	●
Ahozko testuak ekoiztea (bakarrizketak edo elkarrizketak), pertsonen arteko harremanetan erabiltzen direnen modukoak, ikastetxe barruan eta gertukoekin: jolaserako elkarrekintza (euskaraz, bereziki), informazioa, azalpenak, iritzi testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizunak, iritziak partekatzea eta eztabaida moderatuak.		●		●	
Gizarteko hedabideetan berezko diren ahozko testuen modukoak ekoiztea (albisteak, adituei elkarrizketak, erreportajeak eta abar).	●				
Ahozko testuak ekoiztea, ikasteko eta informatzeko: kidekoen arteko elkarrizketak eta lantaldekoak, deskripzioak, gelako aurkezpenak, kontzeptuen definizioak, adituei elkarrizketak edo eztabaidak.	●	●	●		●
Informazioa hainbat iturritan bilatzea; eta edukia aukeratu eta antolatzea, galdera egokiak eginez eta oharrak, eskemak edo gidoiak erabiliz.			●		
Kidekoen artean elkarrizketa erabiltzea, ikaskuntza partekaturako tresnatzat hartuta.	●	●	●	●	●
Komunikazio trukerako elkarrekintza arauak erabiltzea, elkarrizketak hasteko, elkarrizketei eusteko eta elkarrizketak bukatzeko: deitu, ohartarazi, arreta bildu, itxaron, txandak, adeitasun arauak, erantzuna egokitu hizketakideak esandakora, ahots tonua, jarrera eta keinu egokiak eta amaiera.	●	●	●	●	●
Lankidetzan aritzeko eta errespetuzko jarrera, bai komunikazio trukeko egoeretan, bai ikaskuntza partekatuko egoeretan.		●	●	●	●
2. EDUKI MULTZOA. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURRI ETA IDATZI	11	12	13	14	15
Grafiko, eskema eta bestelako irudien bitartez adierazitako datuak interpretatzea.			●		
Ozenki irakurtzea, ahoskera, erritmo, geldione, doinu eta enfasi egokiekin.			●		
Liburutegiak (birtualak ere bai) gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, idatzizko ekoizpenerako ereduak eta informazioa eskuratzeko.			●		
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gidaritzapean erabiltzea, informazioa bilatzeko, non dagoen zehazteko, aukeratzeko eta antolatzeko.			●		



HIRUGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	11	12	13	14	15
Arreta		●			
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●	●	●	●	●
Ingurunearen azterketa			●		●
Taldeko presioarekiko erresistentzia		●			●
Egokitzapena eta malgutasuna					●
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○




11. JARDUERA ZER DIOTE ADITUEK?

HELBURUAK

- Mugikortasunean dauden arriskuak identifikatzea.
- Arriskuen ondorioen gainean eta arriskuak ahal denean prebenitzeari buruz gogoeta egitea.

METODOA

Elkarrizketa.



NOLA EGIN


Hezitzaileak ikasleei proposatuko die talde txikiak egin ditzatela, eta pentsa dezatela zer galdera egingo liezazkioketen zirkulazioko aditu bati; esate baterako, udaltzainari, autoeskolako irakasleari eta abar.

Galderen zerrenda egin eta gero, galderak bateratuko dituzte, eta guztien intereseko zerrenda bakarra osatuko dute. Gero, talde txiki bakoitzak harremanetan jarri beharko du adituren batekin, eta elkarrizketa egin.

Talde bakoitzak elkarrizketa audioan grabatu beharko du, eta elkarrizketatuak emandako erantzunen laburpena ere egin beharko du.

Jaso dituzten erantzunak talde handian aurkeztu beharko dituzte.

Helburua da ondorioak ateratzea honako gai hauei buruz: zergatik gertatzen diren istripuak, zer motatako irtenbideak gauzatzen diren, zer arrisku dagoen mugikortasunean eta abar.



35

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



12. JARDUERA


IPUINA SORTUKO DUGU

HELBURUAK

- Mugikortasunean dauden arriskuen gainean gogoeta egitea.

METODOA

Talde txikian lan egin eta taldeko eztabaida.



NOLA EGIN

Hezitzaileak hiru talde handitan jarriko ditu ikasleak, eta talde bakoitzean, gero, hiruko taldetxoak egingo ditu.

Ikasle guztien artean ipuin bat asmatuko dute. Beraz, talde txiki bakoitzaren egitekoa izango da ipuin horren zati bat idaztea.

Talde guztiei zenbait hitz eta testuingurua emango dizkie hezitzaileak, eta, hortik abiatuta, minutu batzuk izango dituzte ipuinaren sarrera idazteko.

Hezitzaileak egoki irizten dion denbora igaro eta gero, ipuinak talde bakoitzetik hurrengo taldera eramango ditu. Lehen taldekoak bigarrenera eramango ditu; bigarrenekoak, hirugarrenera; eta hirugarrenekoak, lehenengora. Beraz, guztiek irakurriko dituzte egokitu zaien ipuinaren sarrera, erabili behar dituzten hitzak eta kontakizuna zein testuingurutan sartu behar duten. Une horretan, ipuina idazteari ekingo diote.

Esleitutako denbora igarotzen denean, berriaz eramango dira ipuinak talde batetik bestera, eta egokitu zaien ipuinaren amaiera idatzi beharko dute.

Ipuin bakoitzean zehaztutako bost hitzak agertu behar dira. Garrantzitsua da argitzea hitz guztiak ez direla zertan sarreran jarri, eta ez dituzte hitzak nahitaez ordena jakin batean jarri behar. Orobat, hitz bakoitzaren familiatik eratorritako edozein erabil dezaketela ere azalduko die hezitzaileak.

Ipuinak bukatu dituztenean, ozenki irakurri eta aztertu egingo dituzte.

Iradokitako hitzek eta azalduetako bide egoera edo testuinguruek bidea emango dute hitz egiteko adin horretako gazteen artean istripuak eragiten dituzten ohiko hiru arazoz:

- Segurtasun pasiboko elementuak (kaskoa, segurtasun uhala...) gaizki erabiltzeak edo halakorik ez erabiltzeak berekin dakarren arriskua behar beste aintzat ez hartzea.
- Taldearen eragina.
- Bideko arauak ez betetzea (kalea egoki ez den lekutik zeharkatzea, azkarregi ibiltzea...).

Horretarako, saiatu beharko da ikusten ipuinek zer duten komunean eta zer ondorio ateratzen ditzaiegun mugikortasunaren, arriskuaren eta segurtasunaren arloetan.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketa aritu


Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○





Eztabaidari hasiera emateko, honako galdera hauek egin daitezke:

- Zer motatako arriskuak agertu dira? Bide errealitatean zer beste arrisku egon daiteke?
- Zer emozio senti dezakegu presiopean gaudela sentitzen dugunean? Zer egin dezakegu hori sentitzen dugunean?

- Zerk eragin ditzake istripuak?
- Zerk sentiarazten gaitu seguru kalean? Eta ez seguru?
- Zertarako balio dute arauak? Betetzen al ditugu?

ERABIL DAITEZKEEN EGOERA EDO TESTUINGURUAK

1. taldearentzako testuingurua	2. taldearentzako testuingurua	3. taldearentzako testuingurua
Adiskide talde bat bizikletaz egiteko txangorako plana egiten ari da.	Txangoa autobusez egitea erabaki dute.	Herri horretan trenbidea dago, eta trenbidea zeharkatzeko gaineko pasabidea eraiki dute.

IRADOKITAKO HITZAK

1. taldea	2. taldea	3. taldea
Ez segurua	Barne kontraesana	Araua
Distrakzioa	Lasterketa	Aldaketak
Arriskua	Edozein emozio: amorrazioa, beldurra...	Segurtasuna
Mina	Taldea	Erresistentzia
Segurtasun pasiboko edozein elementu: kaskoa, segurtasun uhala eta abar.	Istripua	Betebeharra

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



13. JARDUERA

EGIN DITZAGUN GALDERAK ETA EZTABAIDA DEZAGUN

HELBURUAK

- Istripuen eta haien ondorioen gainean gogoeta egitea.
- Prebentzio ekintza posibleei buruz gogoeta egitea.

METODOA

Lana talde txikian eta taldeko eztabaida.


NOLA EGIN

Hezitzaileak bikoteka edo hirunaka jarriko ditu ikasleak, eta zirkulazio istripuei buruzko lana egin behar dutela adieraziko die.

Horretarako, informazioa bildu beharko dute hainbat iturri eta liburutegitan. Iturri eta liburutegi gehienak birtualak izango dira eta, beraz, Internetarako sarbidea izan beharko dute.

Taldeak antolatu, informazioa bilatu eta informazio hori hautatu eta gero, gelako gainerakoekin partekatuko dute, eta erantzunak egiaztatzen saiatuko dira.

Gai horri buruzko eztabaida sortuko da, eta ondorioak ateratzen ahalegindu beharko dute.



Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



EGIN DITZAGUN GALDERAK ETA EZTABAIDA DEZAGUN

Zer dira zirkulazio istripuak?

Defini ezazu arrisku terminoa.

Zerrenda itzazu zure ohiko mugikortasunean (*oinez zabiltzanean zein ibilgailuren batean zoazenean*) egon daitezkeen arriskuak.

Zein izan zen lehen zirkulazio istripua?

Bila ezazu prebentzio hitzaren definizioa.

Bila ezazu zer egin dezakezun zirkulazio istripuak prebenitzeko.

Nolakoak dira zirkulazio istripuak, gaur egun?

Zenbat hildako eragiten dituzte zirkulazio istripuek, urtean?

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



14. JARDUERA

ZER EGINGO DU MARKOK?

HELBURUAK

- Barne kontraesanez ohartzea, eta erabakiak hartzen ditugunean nola eragiten diguten jabetzea.

METODOA

Dilema.

NOLA EGIN

Hezitzaileak dilema bat zer den azalduko die: dilema istorio bat da, eta horren gaineko erabaki bat hartu behar da, baina bi aukera baino ez dira izaten. Bi aukeretako bat hautatu behar da; biak dira onargarri, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte.

Hori egin eta gero, hezitzaileak Marko eta mutil berria eranskineko istorioa kontatuko du, eta amaieran, bi aukerak errepikatuko ditu:

Autora sartuko da, ezer esan gabe?

Autoan ibiltzeko aulki jasogailua behar duela esango du?

Haurrak lerroan jarriko dira. Hezitzaileak begiak ixteko eskatuko die (elkarren eraginik izan ez dezaten) eta lehenengo aukeraren alde daudenak bere eskuinaldean jar daitezen esango die, eta bigarren aukeraren alde daudenak, ezkerraldean.

Bi aukerak sortu direnean, azpitaldeak egingo dira (lau eta sei pertsona artean izango ditu azpitalde bakoitzak), bi aukeretan azpitalde kopuru berdintsua izan dadin saiatuz.

Azpitalde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiak gainean gogoeta egingo du. Azpitalde bakoitzeko bozeramaileak beren arrazoiak azalduko dizkio talde osoari.

Bozeramaile guztiek azalpenak eman eta gero, eztabaida egingo dute talde handian, eta parte-hartzaile bakoitzak arrazoiak alde edo kontrako iritzia emateko aukera izango du.

Eztabaidan, taldeetako edozein kide lekuz alda daiteke, baldin iritzia aldatzen badu. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



MARKO ETA MUTIL BERRIA



Markok 11 urte ditu dagoeneko. Mutil alai eta jostalaria da, nahiz eta lagunek beti zirikatzen duten garaiera dela eta; nanotxo jarri diote ezizen. Asko gogaitzen du horrela deitzeak. 15 urte betetzen dituenean haziko dela eta ez diola inork gehiago horrela deituko esaten du. Ez dakigu nork esan dion hori, baina bera ziur dago egunen batean luzatuko dela.

Ikastetxetik urrun bizi da, eta amak egunero autoz eramaten du. Ikastetxetik etxerako bidea egiteko, elkarrengandik gertu bizi diren gurasoak joan ohi dira bila, txandaka.

Gorka izeneko mutila iritsi berri da ikastetxera, eta Markoren etxetik oso gertu bizi da. Garaia eta oso galanta da. Markok egunero begiratzen dio, eta amak beraiekin autoan joateko gonbit ez egitea espero du.

Azkenean, baina, gertatu behar zuen. Mutil haren aitak eta Markoren amak elkar ezagutu dute, eta goizetan ikastetxera txandaka eramatekotan geratu dira.

Lehen egunean Gorka eta haren aitarekin joan behar du ikastetxera, eta, beraz, Marko lotsati gerturatu da autora. Espaloiaaren aldeko atletik hurbildu da, eta Gorka ikusi du barruan, aurrean eserita, gidariaren alboko aulkian. Harritu egin du horrek, bera ez baita inoiz aurreko aulkian jarri. Amak ezin duela esan ohi dio, atzean joan behar duela, eta nagusi egiten denean joango dela aurrean.

Gorkak keinu azkarra egin dio, atea ireki eta autora sar dadila esateko. Gorkak esana egin du Markok, baina atea irekitzean ohartu da han ez dagoela aulki jasogailurik, eta berak elementu hori behar du ikastetxera joan ahal izateko. Marko isilik geratu da atea irekita duela; ez daki zer egin.

Lotsaz, eta ia-ia xuxurlatuz, norbaitek entzuteko beldurrez balego bezala, honako hau esan du: *Aizu, Gorka, non dago aulki jasogailua? Jasogailua behar dut ikastetxera joateko, amak ez dit inoiz uzten jasogailurik gabe joaten!*

Gorkak iseka aurpegiaz begiratu dio, eta barreka hasi da. Zera esan dio: *Entzun dut nanotxo esaten dizutela, baina, gainera, nanotxo beldurtia zara! Kar, kar, kar! Zer gertatuko zaizu, bada, aulki jasogailurik gabe bazoaz? Ez al duzu ikusten ergelkeria dela, eta nik ez dudala segurtasun uhalik ere jartzen, eta ez zaidala ezer gertatzen?*

Marko ate aurrean dago oraindik, geldia eta zalantzati, eta gero eta lotsatuago sentitzen da. Une horretan, Gorkaren aita agertu da, eta honako hau galdetu dio: *Zerbait duzu, Marko?*

Zer egingo du Markok?

- Arazoa azalduko dio Gorkaren aitari.
- Ez du ezer esango eta autora sartuko da, aulki jasogailurik jarri gabe.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○




15. JARDUERA EZTABAIDATXOAK

HELBURUAK

- Gure ekintzek zer arrisku ekar ditzaketen hausnartzea.

METODOA

Eztabaida.



NOLA EGIN

Ikasleak bi aldetan jarriko dira; alde bata BAI izango da (baieztapenarekin bat nator), eta, bestea, EZ (ez nator bat).

Hasieran, ikasleak zutik egongo dira gelaren erdian. Hezitzaileak azalduko die baieztapen bat egingo duela (polemiko samarra edo interpretazio asko egiteko aukera emateko modukoa izan behar du) eta, jarraian, BAI aldera edo EZ aldera joan eta bertan eseri beharko dutela, duten iritzia araberak.

Pertsona gutxien dituen aldekoek beren argudioak azaldu behar dituzte. Ondoren, beste aldekoek adieraziko dituzte beren argudioak. Alderdi bienak entzun eta gero, ikasle guztiek argudio guztiak eztabaida ditzakete.

Eztabaida bukatutzat jo daiteke ondoriorik atera gabe ere.

Interesgarria litzateke araren bat jartzea, hala nola, hitz egiteko hogeita hamar segundo baino ez dituztela izango, pertsona bakoitzak ezin duela hiru aldiz baino gehiago parte hartu baieztapen bakoitzeko edo ezin dela adibide pertsonalik jarri.

Hori abiapuntutzat hartuta, eztabaidatxoak egin daitezke.

ERABIL DAITEZKEEN BAIEZTAPENAK:

- Ez da ezer gertatzen kalea diagonalean (oinezkoen igarobidetik kanpo) zeharkatzen badut.
- Ez da ezer gertatzen bizikletaz espaloian banabil.
- Autoek izan behar dute kontu harrapa ez nazaten.
- Autoen gehieneko abiadura oso motela da. Ez litzateke mugarik egon behar.
- Bizikletaz ibiltzeko kaskoak enbarazu baino ez du egiten. Ez du bizia babesten.
- ...

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



Material honen egileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio

taller kreatiboa
taller creativo
creative workshop
tk

-2013-

